


## **EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %96k Internet erabiltzen dute, eta %83k, sare sozial birtualak**

### ***Azken urtean, hamar puntu handitu da mugikorraren bitartez Internetera konektatzen direnen kopurua***

EAEko 15 eta 29 urte bitarteko ia gazte guztiek (% 96) azken urtean Internet erabili dutela diote. Ehuneko hori Espainiako gazteena baino garaixeagoa da (% 92), eta EAEko 30 urteko biztanleengan eta nagusiagoengan erregistratutakoa baino askoz ere handiagoa (% 55).

Internet darabilten hamar gaztetatik zortzik diotenez, egunero edo ia egunero konektatzen dira. Deigarria da Internet erabiltzen dutenen laurdenak kalean edo toki publikoetan konektatzea, eta herenak baino gehixeagok mugikorraren bitartez, konexio-toki edo -modurik zabalduenak izan ez arren.


Gainera, EAEko gazteen % 83k gizarte-sare birtualen bat erabili dute azken urtean. Ehuneko hori ere askoz handiagoa da 30 urtekoena eta nagusiagoena baino (% 21).



Gizarte-sareak lagunekin edota senideekin komunikatzeko baliatzen dira, nagusiki (hori diote azken urtean gizarte-sareren bat erabili duten hamar lagunetatik zortzik). Hala ere, gazteei galdetzen zaienean zein den lagunekin komunikatzeko gehien erabiltzen duten bidea, telefonoz deitzen dutela erantzuten dutenen ehunekoa handiagoa da gizarte-sareen bitartez egiten dutenena baino (azken urtean gizarte-sareren bat erabili dutenen % 48 eta % 30, hurrenez hurren). Familiarekiko komunikazioari dagokionez, telefonoak alde handiagoa ateratzen die gizarte-sareei.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) Gazteen Euskal Behatokiarentzat landu duen [Gazteen argazkiak 15: Hedabideak](#) ikerlanean kontsulta daitezke, besteak beste, datu hauek. Lagina 1.272 gaztekoa izan da, eta elkarrizketak 2011ko urriaren 3tik 10era burutu ziren.

Bestetik, datu hauetako batzuk [Gazteen Euskal Behatokiak](#) urtebete lehenago IKTen erabilerari buruz egin zuen ikerketako emaitzekin alderatzen baditugu, zera ikus dezakegu: urtebetean (2010eko azaro-abendutik 2011ko urrira bitartean), gizarte-sareak erabiltzen dituztenen ehunekoa lau puntu igo dela, eta % 79tik % 83ra igaro. Internetera mugikorraren bidez konektatzen direnen ehunekoak ere 10 puntu baino gehiago egin du gora, Internet darabiltenen % 27tik % 38ra, hain zuzen ere.



**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**

